

Salberridi, Salbarredi

Elduan sortutako abizena oraindik bizirik Berastegin

Berastegiko baserri- eta etxe-izen bugari izan dira abizen edo deituren oinarri. Baina, denboran zehar, gehienak galdu egin dira Berastegin, nahiz eta askok hemendik kanpo iraun (Gazpio, Elberdin, Urdinarain, Intza, Sagastiberri...).

Salbarredi da bertan sortu eta gaur egun ere Berastegin irauten duen bakarrenetakoa. Azken 500 urteetako historiaz apur bat badakigu; baina, aurrekoaz, noiz sortu ote zen Salberridi etxea eta deitura?

Lehen dokumentuetan Salverridi

bezala idatzia azaltzen dena, gaur egun gehienbat Salvarredi edo Salbarredi bezala erabiltzen da, hemen eta Argentinan. Hala ere, Elduaingo Sorregietan Salverridi aldaerak iraun du gaur arte.

Bataio-agirietan eta XX. mendearen hasierara arte, gehien erabilitako aldaerak Salverridi (55 aldiz) eta Salberridi (36) izan dira; eta, ondoren, Salverridi (55) eta Salbarredi (28). Aldaera horiek XIX. mendearen bukaera aldera arte iraun zuten. Geroztik hasi ziren erabiltzen Salbarredi eta Salvarredi aldaerak eta oinetxeari gaur egunean ematen zaion izena: Salbarregi. Aldaera ugari sortu ziren salberriditarrak Bizkaira, Kantabriara eta Ameriketara joan zirenean ere.


Berastegi aldeko enborra eta Bizkaiko adarra

1599tik 1900era arte, Gipuzkoako 185 bataio-agiritan agertzen dira salbarreditarrak: gehienak Berastegin jaiokak (120, horietatik 25 Elduan), eta ondoren Elduainen (38) eta Berrobin (21). Hiru herri hauetakoetatik aparte, beste sei agiri ageri dira: hiru, Tolosan, bi Amezketan eta bat Hernanin jaiotakoena. Beraz, ez dago ukatzerik gure inguruko deitura dela eta Elduako Salberridi baserritik sortutakoa.

Arabian ez dago deitura hau dakarren bataio-agiririk, eta Bizkaian 74 bataio-agiri daude 1824tik 1900era artean, gehienak mendebal aldean; batez ere, Turtziozen (37) eta Karrantzan (22).

Berastegiko seme Tiburcio *Salberridi* Artola, haren emazte Elduaingo Catalina Errandorena Arozena eta Elduainen jaiotako sei seme-alaba 1823an Bizkaiko Enkarterriko Turtziozera joan ziren bizitzera. Tiburcio eta Catalinaren azken hiru seme-alabak, berriz, Turtziozen bataiatuak, *Ambrosio María Salberrey Errandorena*, *Juan Bautista Salvarrei Erredorena* eta *Tiburcio Manuel Salvarrei Erredorena* bezala erregistratu zituzten. Salberridiren adar bizkaitar hau beste herri batzuetara ere zabaldu zen, baita inguruko Kantabriako herrietara eta Urugaira ere.

Garai berean ezkondu zen Castro Ur-



Oharrak: Eldua, Berastegiko auzoa da. Deiturak gaurko euskal grafiaz idatzi dira. Salbarrediri dagokionez, nahiz eta beti 'b' (eta ez 'v') erabili, bokalak dokumentuetan bezala utzi ditugu.

Aldaerak

- Salverridi, Salberridi, Salvarrigui
- Salverredi, Salberredi, Salvarregui, Salvederri
- Salvarredi, Salbarredi, Salvarredy, Xalvarredi
- Salverradi, Salcurriddi
- Salvarrey, Salva Rey, Salvarrei, Salbarrei, Salvarey, Salvarei, Salberrey

dialesen Elduainen jaiotako *Miguel Estevan Salverridi Yrazusta*. Haren ezkontza-agirian ere Salvarrey idatzi zuten.

Gaur egun, aldiz, 2012ko datuei erreparatuta, Kantabrian eta Bizkaian 180 lagun daude Salvarrey deiturakoak, beren jatorria Elduako Salberridin dutenak.

Hego Amerikako adarra

Juliana Salvarredi Iparragirre "Natalie" itsasontzi frantziarrea jaiotako 1854an. Dirudienez, haren gurasoak, Berastegiko *Miguel Ygnacio Salverredi Arrillaga* eta *Maria Francisca Yparragirre*, eta haien hiru urteko alaba, *Josefa Ygnacia*, ere itsasontzi berean ziren Amerikara bidean. Ez dugu haien ondorengoen berririk jakiterik izan.

1856an Jose Ascensio Salbarredi Saizar eta Maria Catalina Goikoetxea Marizkurrena senar-emazte berastegiarrak Argentinara iritsi ziren, Montevideotik pasa ondoren. 1857an jaiotako Entre Riosko Victorian haien seme Francisco Ignacio.

Miguel Martin Salbarredi Azparren berastegiarrak, berriz, Entre Riosko Concordia departamenduan kokatu zen, eta 1895ean bertan erroldatuak ageri dira



Mendozako Salbarredi anai-arrebak 1902. urte inguruan. Gurasoak Berastegin bizi ziren eta haien argazkiak geroztik erantsi zituzten. Zutik, ezkerretik eskuinera: Jose Ignacio (1883), Jose Miguel (1888), Severiano (1886), Pascual (1868), Bartolome (1878), Martin (1879); eserita, ezkerretik eskuinera: Maurra (1881), Francisca Esnaola Letamendia (ama, 1845), Jose Maria (1871), Jose Domingo Salbarredi Artano (aita, 1847).

haren seme-alaba Maria (1890), Juan Cruz (1892) eta Miguel Martin (1894).

Bartolome Salbarredi Artano, aldiz, Amezketa jaioa (aita berastegiarrak), Entre Riosko Gualeguaychú departamenduan ageri da erroldatua 1895an, haren seme Bartolome (1890) eta Martinekin (1892) batera.

Amezketan jaiotako Jose Domingo Elberdinen bizi izan zen Jose Domingo Salbarredi Artano (hark ere aita berastegiarrak zuen) eta Maria Francisca Esnaola Letamendiren zortzi seme eta alaba batek (lehen aipatu dugun Bartolomeren ilobek) emigratziora jo zuten eta Argentinako Mendozan jarri ziren bizitzen. Haien ondorengoak Argentina osora zabaldu ziren, baita Uruguai eta Txilera ere.


Gurasoak zaindu beharra zela eta,

Jose Ignacio Salbarredi Esnaola, Jose Domingoren seigarren semea, Berastegira itzuli zen; eta bertan hazi zuen bere familia. 1949an sei hilabeteko egonaldia egin zuen Argentinan, anaiak eta ondorengoak bisitatzeko. 2008an, berriz, Jose Ignacioren bilobak Leitzaatik Mendozara zihoazen aitzakian, salbarreditarrek familia-bilera antolatu zuten, eta Mendoza, Salta, Neuquén, Río Negro, Buenos Aires eta Córdobaetik etorritako 180 lagun bildu ziren.

Gaur egun salbarreditar ugari daude Amerika osoan (Argentinan, Mexikon, Uruguain, Brasilen, Perun, Txilen, Estatu Batuetan...).

Arbol genealogikoaren inguruko azalpenak

1515 inguruan jaiotako **Joanes Sal-**



10. Argentinako 1895eko 'censo'an agertzen dira. Jose Ascensio eta emaztea 1856-10-22an iritsi ziren Argentinara 'Pampero' itsasontzian Montevideotik. Montevideora 'La Fou' itsasontzi frantziarrea joan ziren. Bi alaba izan zituzten baina ez dira agertzen.

12. Jose Ignacio, beste 7 anai eta arrebak Argentinara joan ziren. Jose Ignacio bakarrik itzuli zen.

11. Argentinako 1895eko 'censo'an agertzen dira.



Salbarredi baserria 1987an eta gaur egun, azken berritze lanak egin ondoren. [Guregipuzkoa.net / Juaninazio Elosegil]

berridi, Salberridi etxearen jabea, da ezagutzen dugun lehena. Emazte **Catalina** deitura beraz ageri da; ez dakigu Salberridi deitura berea ote zuen ala Joanekin ezkontzerakoan hartu zuen. Alargundu zenean, Ibarrako **Maria Etxeberriarekin** ezkondu zen. Joanesen aipamena egiten duen lehen dokumentua 1552koa da.

Domingo da zerrendako bigarrena, 1545 inguruan Salberridi etxean jaioa. Bere amaordearekin auzi bat izan zuen baserriaren jabetza zela eta. Hala ere, berak jarraitu zuen jabe izaten, Haren emazte **Elduako Arginarena** etxeko **Madalena** izan zen, eta Arginarena deitura erabili zuen, nahiz eta bere aita Miguel Arraiago izan.

Joanes, Domingoren semea, **Maria Sorregietarekin** ezkondu zen; eta, Madalena, alaba zaharrena, Berrobira joan zen, bertako Joanes Iriarterekin ezkondu. Madalenaren anaiek ere Berrobira jo zuten bizitzera. Hantxe jaio zen **Tiburcio**, Madalenaren anaia baten

semea (ezin izan dugu jakin zein zen Tiburcioren aita: Joanes edo Miguel).

Tiburcio Etxenagusiako Mariarekin ezkondu zen, eta Berrobin jaio zen haien seme **Baltasar**. Baina Berastegira joan ziren bizitzera eta bertan hil zen Tiburcio 1718an. Ondorengoek Berastegin jarraitu dute gaur arte.

Orain gutxi arte familia honetako bi adarrek iraun dute Berastegin. Adar batekoak ziren Josefina Salbarredi Garziarena eta haren anaia Demetrio. Josefina 2008an hil zen, eta Demetrio Leitzara joan zen bizitzera. Hain justu ere, Mendozara joan eta handik etorritako Jose Ignacioren alaba eta seme dira Josefina eta Demetrio. Azken hau Gasteizen jaio arren, Donostian eta Berastegin bizi izan zen, ezkondu Leitzara joan zen arte. Beste adarra, berriz, Buztiñenekoa, ondo ezaguna da herrian: 90 urte beteta ere sasoiari dagoen Felisa Saizarrek, Juan Miguellen alargunak, eta haien ondorengoek osatzen dutena.

Elduako Salbarredi (Salbarregi?) baserria

Adituen arabera, eraikinaren oinarria XVI. mendekoa da, eta garai bateko haritezko hamabi habeak eta etxe barruko dolarearen zutoin bikoitzak bere baitan gordetzen ditu oraindik ere (antzeko eraikin ugari dago Berastegin: Sagastiberri, Bulatzia, Bazterretxe...). Fatxada, berriz, XVIII. mendekoa omen da. Nahiz eta mendeetan zehar eraikinak berrikuntza eta aldaketa asko izan, jabeek beti jakin izan dute etxearen antzinako ezaugarri batzuk gordetzen. Azken konponketa orain urte gutxi egin zen. Bestalde, esan behar da 2006an Eusko Jaurlaritzak "monumentu" izendapena eman ziola Salbarredi baserriari.

* Lan honen oinarri nagusia Elizako Sakramentuen erregistroa izan bada ere, informazio asko Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorreko dokumentaziotik atera dugu. Azkenik, ugarria izan da internetetik ateratako informazioa.



Azpiroz Zubillaga S.L. Eraikuntzak

Kale Nagusia nº 8-3
20492 Berastegi
e-mail: azpirozubillaga@telefonica.net

Tel.: 943 683 448
Mobila: 670 890 113
Fax: 943 683 253



**GARAI
KARABANAK**

Tel. 615 709 198